

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 32/2017 Foru dekretua, ekainaren 27koa, onartzen dituen Arabako landa bideak onik zaintzeko "Laguntzak gauzatan" eran ematen diren laguntzak arautzen dituzten oinarriak

Diputatu Nagusiaren uztailaren 3ko 132/2015 Foru Dekretuak, Arabako Foru Aldundiko 2015-2019ko legegintzaldirako sailak zehazten dituenak, ezartzen du Nekazaritza Sailari dagokiola, besteak beste, Arabako Lurralde Historikoko nekazaritza eta landa garapena.

Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 14/2016 Foru Dekretuak, Nekazaritza Sailaren egitura organiko eta funtzionala onesten duenak, sail horren eskumen eta eginkizunen artean, landa azpiegitura hobetzeko planak, proiektuak eta laguntza programak egitekoa ezartzen du, Landa Azpiegiturako eta Ureztatzaileen Bulegoko Atalaren bidez.

Otsailaren 13ko 6/1995 Foru Arauak, Araba Lurralde Historikoko landa-bideen erabilera, artapen eta zaintzarakoak, ezartzen du Arabako landa bide publikoak lurralde historikoenak, udalenak edo kontzejuenak direla eta toki erakunde titularrei dagokiela bide horiekin zerikusia duten eginkizun guztiak gauzatzea. Bestalde, 12. artikuluan xedatzen Arabako Foru Aldundiak toki erakundeei dirulaguntzak emateko bideak jarriko dituela erregistroan sartutako landa-bideen artapen, aldaketa eta mantentzerako.

Arabako Lurralde Historikoko bide sare zabalari euste aldera, nekazaritza sektorearen beharrek bat datorren erabilera eragozten duen narriadura nabarmenik gertatu gabe, eta egungo egoera ekonomikoa kontuan hartuta, batez ere eskuarki mantentzeko krediturik edukitzen ez duten bideen erakunde titularrentzat, egokitzat jo da Nekazaritza Sailak lehentasunez nekazaritza erabilerakoak diren bide gehienetan esku hartzea, modu antolatu eta etengabea, ez mantentzeagatik degradatzea saihesteko. Horretarako, gauzazko laguntza plan bat ezarriko du; hain zuzen, aldundiak bideetako mantentze lanak kontratatuko ditu eta gero horien titularrak diren erakundeei emango die bideak, foru dekretu honen eranskinean dauden oinarri arautzaileen arabera. Hori guztia, urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauan, Arabako Lurralde Historikoen dirulaguntzei buruzkoan, xedatutakoarekin bat etorritik.

Azpiegitura horiek mantentzeko beharrari eragiten dioten elementu sozial eta ekonomikoak kontuan izanik eta horiek ebaluatuta, horietan modu antolatuan eta zuzen esku hartzea eskatzen duten inguruabar batzuk antzeman dira, ez baita egingarria Arabako Lurralde Historikoko geografia guztian aldi berean jardutea.

Horretarako eta administrazio, funtzio eta aurrekontu ekonomia dela eta, 3 zona ezarri dira Arabako Lurralde Historikoan. Lurralde guztia biltzen dute, eta horien mugapenak arrazoi geografikoak ditu oinarri.

Zona bakoitzak 6 azpizona ditu. Horiek mugakideak eta elkarrengandik hurbil dauden, antzeko eremu batean bat datozen edo mugapen etengabea duten zenbait udalerriz daude osatuta; haien ezaugarria bide luzeraren ratioa da, guztietan antzekoa baita, 150 eta 200 km bitartekoa.

Zona guztietan aldi berean jardungo da, eta laguntza hauen urteko deialdi bakoitzean zein azpizonatan jardungo den zehaztuko da. Ezingo da azpizona errepikatu, txandarik izan ez dutenak badaude. Euskal Udalerrien Elkarteko (EUDEL), Arabako Kontzeju Elkarteko (AKE), Gasteizko Kontzeju Elkarteko (ACOV) eta Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Saileko ordezkariekin adostu beharko da zehaztuen hori. Erakundeok bideen titularrak diren eta, azken batean, gauzazko dirulaguntzaren onuradunak izan daitezkeen erakundeak ordezkatzeko dituzte.

Beraz, laguntzaren urteko deialdi bakoitzean zehaztuko da zona bakoitzeko zein azpizonari egokituko zaion jarduketa txanda, eta hor dauden erakundeentzat, Arabako Foru Aldundiaren bide erregistroan sartutako landa bideen titularrentzat, irekiko da.

Bestalde, Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 29ko 916/2016 Erabakiaren bidez, Foru Sektore Publikoaren 2017-2019 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onetsi zen. Horren neurrietako bat bideak egokitzeko lanetara xedatutakoa da, 40.1.01.46.01.650.00.03 "Landa bideak kontserbatzeko obrak" partidaren kargura (350.000,00 euro), eta adierazi zen dirulaguntza horren zenbatekoa diruz lagundu daitekeen aurrekontuari ehuneko bat aplikatzearen emaitza izango zela.

Foru dekretu honetan proposaturiko gauzako dirulaguntza motak aipatutako Foru Sektore Publikoko Dirulaguntzen Plan Estrategikoan onetsitakoa funtsean aldatzen duela kontuan hartuta, bidezkoa da horren aldaketa onestea.

Horregatik, Nekazaritza Saileko foru diputatuaren proposamenez eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. "Gauzako laguntzak" modalitatean Arabako landa bideak mantentzea xede duten laguntzak emateko oinarri arautzaileak onestea, foru dekretu honen 1. eranskinaren arabera.

Bigarrena. Laguntza horietarako, Arabako Lurralde Historikoa banatzen den zonak eta azpizonak ezartzea; foru dekretu honen 2. eranskinean adierazten dira.

Hirugarrena. 2017ko laguntzen deialdia onartzea, jarraian zehaztutakoaren arabera:

– Zuzentzen den eremu geografikoa: deialdi honetako jarduketa azpizonak foru dekretu honen 3 eranskinean jasotzen direnak dira.

– Eskerak aurkezteko epea eta lekua: 20 egun natural foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatuta, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean, Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen Legearen (urriaren 1eko 39/2015 Legea) 16.4 artikuluan ezarritakoari kalterik egin gabe.

– Dirulaguntzaren gehienezko zenbatekoa: erakunde batek ere ezingo du 20.000,00 euro baino gehiagoren balioak den gauzako laguntzarik jaso, 6.2 artikuluan xedatutakoaren arabera kalkulatuta.

– Dirulaguntza egozten zaion aurrekontu kreditua: 350.000,00 euro Arabako Foru Aldundiaren 2017rako gastu aurrekontuko 40.1.01.46.01.650.00.03 "Landa bideak kontserbatzeko obrak" partidaren kontura.

– Dirulaguntzak emateko irizpide objektiboak: deialdi honetan, dirulaguntzak emateko irizpideak oinarri arautzaileen 6. artikuluan jasotakoak dira.

Laugarrena. Nekazaritza Saileko foru diputatuari ahalmena ematea honako foru dekretu hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko eta, zehazki, oinarri arautzaileen kontra nahiz deialdiaren ebazpenaren kontra jartzen diren errekurso guztiak ebazteko.

Bosgarrena. Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 29ko 921/2016 Erabakiaren bidez onartu zen Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren eranskina aldatzea, dekretu honen 4. eranskinaren edukia sartzeko.

Gasteiz, 2017ko ekainaren 27a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritzako zuzendaria

MARÍA ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE

1. ERANSKINA

ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO LANDA BIDEEN SAREA MANTENTZEKO ETA KONTSERBATZEKO GAUZAZKO LAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ARAUTZAILEAK

1. artikulua. Xedea eta definizioak

1.1. Dekretu honen xedea da Arabako Lurralde Historikoaren eremuan Arabako Foru Aldundiaren landa bideen erregistroan dauden landa bideak mantentzeko eta kontserbatzeko laguntzak "gauzazko laguntzak" modalitatearen bidez emateko oinarri arautzaileak ezartzea.

1.2. Deialdi honetako gauzazko laguntzak honetan dautza: Arabako Foru Aldundiak mantentze eta kontserbazio lanak egingo ditu toki erakundeen eta udalen titulartasuneko landa bideetan, landa bideak konpontzeko burutuko duen proiektuaren barruan.

1.3. Horretarako, egiturazko elementuak garbitu eta lehengoratzeko, errodadura zona egokitze eta bideak landa finkei edo nekazaritza ustiatzeari zerbitzua emateko beharrezkoak diren lanak jotzen dira landa bideen mantentze eta kontserbaziotzat.

2. artikulua. Erakunde onuradunak

2.1. Arabako Foru Aldundiaren landa bideen erregistroan dauden landa bideen titularrak diren Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeak eta udalak izango dira foru dekretu honetan xedatutako laguntzen onuradunak.

2.2. Onuradunak izateko, toki erakundeek eta udalek urteko deialdi bakoitzean zehazten diren jarduketa azpizonetako batekoak izan beharko dute.

3. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen jarduketak

Oinarri arautzaile hauetan xedatutako laguntzak landa bideak mantendu eta kontserbatzeko obrak egikaritzearen ondoriozko gastuak "gauzazko laguntzen" bidez finantzatzeko erabiliko dira.

4. artikulua. Gauzazko laguntzaren zehaztapena

4.1. Oinarri arautzaile hauen arabera ematen diren gauzazko laguntzen gehienezko guztizko munta urteko deialdi bakoitzean zehaztuko da eta ekonomia ekitaldi bakoitzeko aurrekontu baliakizunen menpe egongo da.

4.2. Gauzazko laguntza gastu hauek finantzatzean datza:

4.2.1. Obra proiektua idazteari buruzko jarduketa orokorren kostuak, obra zuzendaritza teknikoa, segurtasunari buruzko laguntza proiektuan zein obretan eta obrak egiteko beharrezkoak diren azterlan guztiak. Zerbitzu horiek Nekazaritza Sailari atxikitako langileek edo, bestela, kanpoko langileek egin ahalko dituzte; Arabako Foru Aldundia arduratuko da horiek kontratatzeaz.

4.2.2. Landa bideak mantendu eta kontserbatzeko beharrezkoak diren eta Arabako Foru Aldundiak kontratatzen dituen obren kostua.

4.3. Ezingo dira beharrezko tasak edo zergak diruz lagundu; hain zuzen, laguntzen onuradun den erakundeak ordainduko ditu.

5. artikulua. Dirulaguntza emateko prozedura

Laguntza emateko prozedura urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauan, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzei buruzkoan, xedatutako lehia prozedura da.

6. artikulua. Espedienteak sailkatzeko irizpide objektiboak eta laguntza munta baliokidearen kalkulua

6.1. Espedienteak puntuka sailkatuko dira, taula hauen arabera (hala ere, urteko deialdi bakoitzean aldatu ahalko dira):

1. LUZERA	PUNUAZIOA
Puntu bat erregistratutako bideko km bakoitzeko (gehienez 50 puntu erakundeko)	0-50
2. Mantentze beharra, ukitutako elementuaren arabera	
Sastrakak kentzeko eta garbitzeko beharrezko jarduketak	1-3
Drainatze elementuetan egin beharreko jarduketak	1-3
Egiturazko elementuetan egin beharreko jarduketak	1-3
Irizpide hau batera zehaztuko da herriko bide guztiei dagokienez. Puntu bat eta hiru puntu bitarteko puntuazioa aplikatuko da ezarritako talde bakoitzean, herriko bideen guztizko luzeraren gainean duten eraginaren arabera.	

6.2. Erakunde onuradun bakoitzari dagokion gauzako dirulaguntzaren baliokidea den zenbatekoa zehazteko, puntuaren balio bat ezarriko da, hain zuzen honela:

Deialdia egotzen zaion guztizko aurrekontu kredituari proiektuak idazteko laguntza teknikoaren zerbitzua emateko beharrezkoa den zatia kenduko zaio. Eraitza zati erakunde guztiek arestian adierazitako baremoak aplikatu ostean lortu dituzten puntuen guztizko batura egingo da, eta ateratako emaitza izango da puntuaren balioa.

Puntuaren balioa eta eskaera bakoitzaren puntu kopurua biderkatzearen emaitza izango da ateratzen den laguntza.

6.3. Erakunde eskatzaile guztiei urteko deialdi bakoitzean emango zaie arreta, lortutako puntuekin proportzionala den moduan.

7. artikulua. Eskaerak aurkezteko lekua, epea eta modua

7.1 Urtero laguntzen deialdia onartuko da; haren barruan honako hauek jasoko dira:

- Deialdia zuzentzen den azpizonak.
- Eskaerak aurkezteko epea eta lekua.
- Dirulaguntza egotzen zaion aurrekontu kreditua.
- Hala badagokio, espedienteak sailkatzeko irizpide objektiboak.
- Hala badagokio, eskaerak aurkezteko inprimaki normalizatu eta erantsi beharreko dokumentazioa.
- Hala badagokio, dirulaguntzaren gutxieneko edo gehienezko zenbateko baliokidea.

7.2. Gauzako laguntzen eskaerak oinarri arautzaile honen eranskin gisa jasotako inprimaki normalizatuan aurkeztuko dira. Horrekin batera, erakunde titularraren erabakiaren ziurtagiria aurkeztuko da; horren bidez, laguntza eskatzea onartu behar du eta obrak egikaritzeko lursailak eskuragarri daudela egiaztatu beharko da.

7.3. Bai laguntza eskatzeko inprimaki normalizatu bai aurkeztu beharreko dokumentazioa urteko deialdi bakoitzean aldatu ahalko dira.

7.4. Erakunde bakoitzak ezingo du eskaera bat baino gehiago aurkeztu deialdi batean. Bat baino gehiago aurkeztuz gero, denak deuseztatuko dira.

7.5. Laguntza eskaerak erakunde eskatzailearen titulartasunekoak diren eta mantentze eta kontserbazio lanak behar dituzten bide guztiak biltzen ditu, eta deialdi bakoitzean ezarritako hautaketa irizpideak aplikatutakoan ateratzen direnak hautatuko dira.

7.6. Eskaeretan akatsak antzematen badira edo eskaerok osatu gabe badaude, organo bideratzaileak, hala badagokio, errekerimendua egingo die erakunde interesdunei, 10 egun balioduneko epean, jakinarazpena eman eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta, konpon ditzaten. Era berean, adieraziko du hori egin ezean eskaeran atzera egin dutela ondorioztatuko dela, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidea-renak, 68. artikuluan xedatzen duenaren arabera.

7.7. Eskaera aurkezteak esan nahiko du bai laguntzen oinarri arautzaileetan bai deialdian ezarritako betebeharrak eta konpromisoak onartzen direla.

8. artikulua. Izapidetzea

8.1. Eskaerak aurkezteko epea bukatutakoan, Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuak espedienteak izapidetuko ditu eta emandako dokumentazioa egiaztatuko du, baita eskatutako betekizunak betetzen diren ere.

8.2. Zerbitzu horrek, espedienteak izapidetu bitartean, beharrezko datuak zehaztu eta egiaztatzeko behar dituen informazio eta agiri gehigarri guztiak eskatu ahalko ditu, ebazpen proposamena egite aldera. Interesdunak ez badu ezer egiten izapide hori betetzeko, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 73. artikuluan xedatutakoari men egingo zaio.

8.3. Egiaztatzen eta, hala badagokio, konpontzen bukatutakoan, aipatutako zerbitzuak deialdi bakoitzean dirulaguntzak emateko xedatutako irizpideak aplikatuko ditu eta dirulaguntza jaso dezaketen bideen zerrenda egingo du, non lortutako puntuazioa azalduko den. Kide anitzeko balioespen organoari proposatuko dio, eta horrek behar bezala arrazoitutako ebazpen proposamena emango du; horren bidez, egindako ebaluazioaren emaitza eta, hala badagokio, laguntza ezesteko arrazoiak zehaztuko ditu.

8.4 Kide anitzeko balioespen organoa honako hauek osatuko dute:

- Landa Azpiegiturako eta Ureztatzaileen Bulegoko Ataleko burua.
- Landa Azpiegiturako eta Ureztatzaileen Bulegoko Ataleko teknikari bat, Nekazaritza Garapenerako Zerbitzu horri atxikia.
- Nekazaritzako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuaren burua.
- Administrazio Kudeaketa Atalaren burua.

9. artikulua. Ebazpena eta jakinarazpena

9.1. Kide anitzeko balioespen organoak proposatuta, espedienteak dagokion foru organoak ebatziko ditu, gauzazko laguntzarako urtero xedatuta dagoen kreditu zenbatekoaren arabera, indarrean dagoen araudiari jarraiki. Ebazpen horrek amaiera emango dio administrazio bideari, eta horren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahalko da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian, arautzen duen araudiarekin bat etorritik. Gainera, aukerako berraztertze errekurtsua aurkeztu ahalko da.

9.2. Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 21. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, gehienez sei hilabeteko epea izango da prozeduraren ebazpena eman eta jakinarazteko, eskabideak aurkezteko epea bukatzen denetik aurrera. Epealdi hori igaro eta berariazko ebazpenik eman eta jakinarazten ez bada, eskabidea ezetsi dela ondorioztatuko da, halaxe xedatzen baitu azaroaren 17ko 28/2003 Lege Orokorrak, dirulaguntzenak, 25.5 artikuluan.

9.3. Laguntzaren ebazpenaren jakinarazpena banakakoa izango da, eta horretan berariaz jasoko da gauzazko laguntza dela, lortu den puntuazioa eta, hala badagokio, laguntza ezetsi dela.

10. artikulua. Laguntzen ordainketa

Gauzazko laguntza denez, ez da erakunde onuradunen aldeko kreditu transferentziarik egongo. Horren ordez, dirulaguntzaren xed1e diren bideak emango dira, mantentze eta kontserbazio obrak eginda. Egintza horren akta egin beharko da eta Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuko pertsona batek sinatuko du, erakunde onuraduneko ordezkari batekin batera. Akta horretan, gainera, onuradunak gauzazko dirulaguntza hori dela medio hartzen dituen konpromisoak eta laguntza horren zenbateko balioetsia jasoko dira.

11. artikulua. Erakunde onuradunen betebeharrak

Foru dekretu honetan ageri diren laguntzen onuradunek hau egin beharko dute:

11.1. Ematen zaien gauzazko dirulaguntza onartu.

11.2. Behar bezala egiaztatutako eta Nekazaritza Sailari jakinarazitako ezinbesteko kasuetan izan ezik, diruz lagundutako bideak erabilera eta funtzionamendu egoera egokian mantendu, ematen direnetik gutxienez sei urteko aldian, eta beharrezkoak diren mantentze lanak beren kabuz egin.

11.3. Publizitate betebeharrak bete, urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzei buruzkoak, 17.3 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

12. artikulua. Ez betetzeak eta itzulketak

12.1. Erakunde onuradunak gauzako dirulaguntza onartzen ez badu edo diruz lagundutako bidea emateko akta sinatzeari uko egiten badio, Foru Ogasunari itzuli beharko dio mantentze lanak kostatu diren zenbatekoa, kontratista adjudikaziodunari egindako azken ordainketaren egunetik kalkulaturako legezko interesekin batera.

12.2. Diruz lagundutako bidea eman osteko sei urteetan erabilera egoera egokian mantentzen ez bada, egiaztatutako eta Nekazaritza Sailari jakinarazitako ezinbesteko kasuetan izan ezik, orduan ere itzuli beharko zaio Foru Ogasunari mantentze lanak kostatu diren zenbatekoa, kontratista adjudikaziodunari egindako azken ordainketaren egunetik kalkulaturako legezko interesekin batera.

12.3. Itzultzen diren zenbatekoak zuzenbide publikoko diru sarreratzat joko dira, egokiak diren legezko ondorioetarako.

12.4. Laguntza itzultzeko prozedura Nekazaritza Sailaren foru aginduaren bidez zehaztuko da, kontrol edo ikuskapen txostena, itzulketa proposamena eta erakunde onuradunaren entzunaldia ikusita.

12.5. Laguntza itzultzeko prozeduraz gainera, urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzei buruzkoak, xedatutako arau hausteengatik zehapen prozedura abiarazi ahal izango da.

13. artikulua. Laguntzen bateragarritasuna

13.1. Oinarri hauek xede dituzten gauzako laguntzak helburu bera duen eta edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatutatik datorren beste edozein dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabiderek bateragarriak dira, baina guztizko zenbatekoa ezingo da bideak mantentzeko lanen kostua baino handiagoa izan.

13.2. Erakunde onuradunak Arabako Foru Aldundiko beste sail batzuen edo beste administrazio publiko batzuen dirulaguntza publiko edo pribatuak eskatu eta lortu ahalko ditu, gauzako dirulaguntza hau dela eta hartutako konpromisoak sei urtez betetzea xede duten mantentze lanetarako.

14. artikulua. Araubide juridikoa

Foru dekretu honetan xedatutako gauzako dirulaguntzen onuradun diren erakundeek lege hauek bete beharko dituzte: urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzei buruzkoa, azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzena, eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onetsitako araudi aplikagarria, baita Europar Batasuneko, estatuko eta autonomia erkidegoko arauetan ezarritako gainerako xedapenak ere. Horrez gain, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak eta, hala badagokio, Kontuen Auzitegiak edo beste organo eskudun batzuek eskatzen dieten informazio guztia eman beharko dute, aipaturako foru arauaren 47. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera.

15. artikulua. Finantzaketa

Laguntza horietara xedatutako baliabide ekonomiko guztiak Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Saileko aurrekontu kredituetatik etorriko dira, eta horien muga deialdi bakoitzean gastua egozteko ezartzen diren muntak izango dira.

2 ERANSKINA. BIDEAK MANTENTZEKO PLANAREN ZONIFIKAZIOA

1. zona			2. zona			3. zona					
Udala	Kuadrilla	Kilometroak	Azpizona	Udala	Kuadrilla	Kilometroak	Azpizona	Udala	Kuadrilla	Kilometroak	Azpizona
MOREDA ARABA	ERRIOXA	24,28	1	GASTEIZ (HEGO-EKIALDEA)	GASTEIZ	89,00	1	OKONDO	AIARA	16,61	1
OION	ERRIOXA	99,31	1	ARRAIA-MAEZTU	MENDIALDEA	77,22	1	LAUDIO	AIARA	45,05	1
IEKORA	ERRIOXA	63,78	1		GUZTIRA	166,22		AIARA	AIARA	120,05	1
	GUZTIRA	187,37		GASTEIZ (IPARRALDEA)	GASTEIZ	135,00	2		GUZTIRA	181,71	
BILAR	ERRIOXA	55,44	2	LEGUTIO	ZUIA	21,40	2	URKABUSTAIZ	ZUIA	41,29	2
LANTZIEGO	ERRIOXA	66,07	2	ARAMAIO	ZUIA	18,81	2	ZUIA	ZUIA	39,70	2
KRIPAN	ERRIOXA	34,04	2	ARRATZUA-UBARRUNDIA	ZUIA	57,72	2	ZIGOITIA	ZUIA	74,50	2
	GUZTIRA	155,54			GUZTIRA	232,94			GUZTIRA	155,49	
NAVARIDAS	ERRIOXA	32,86	3	GASTEIZ (HEGO-MENDEBALDEA)	GASTEIZ	31,06	3	AMURRIO	AIARA	67,07	3
LEZA	ERRIOXA	26,67	3	KANPEZU	MENDIALDEA	89,23	3	ARTZINIEGA	AIARA	12,66	3
ESKUERNAGA	ERRIOXA	35,59	3	HARANA	MENDIALDEA	49,41	3	KUARTANGO	ANANA	57,23	3
IMANUELA	ERRIOXA	29,40	3		GUZTIRA	169,70		IRUÑA OKA	ANANA	40,08	3
	GUZTIRA	124,52		ASPARRENA	AGURAIN	62,75	4		GUZTIRA	177,04	
GUARDIA	ERRIOXA	133,21	4	DONEMILIAGA	AGURAIN	113,43	4	GAUBEA	ANANA	178,41	4
LAPUEBLA	ERRIOXA	16,36	4	ZALDUONDO	AGURAIN	17,61	4	ANANA	ANANA	30,68	4
	GUZTIRA	149,56			GUZTIRA	193,80			GUZTIRA	209,09	
SAMANIEGO	ERRIOXA	34,31	5	AGURAIN	AGURAIN	56,75	5	ARMINÓN	ANANA	33,25	5
BASTIDA	ERRIOXA	70,26	5	IRURAZ-GAUNA	AGURAIN	102,97	5	ERRIBERABEITIA	ANANA	53,31	5
ELCIEGO	ERRIOXA	46,65	5		GUZTIRA	159,72		BERANTEVILLA	ANANA	65,35	5
	GUZTIRA	151,22		BURGELU	AGURAIN	63,48	6	ZANBRANA	ANANA	42,50	5
URIZAHARRA	MENDIALDEA	48,26	6	BARRUNDIA	AGURAIN	97,05	6		GUZTIRA	194,41	
BERNEDO	MENDIALDEA	98,00	6	DULANTZI	AGURAIN	41,22	6	ERRIBERAGOITIA	ANANA	130,53	6
LAGRAN	MENDIALDEA	50,70	6		GUZTIRA	201,75		LANTARÓN	ANANA	114,72	6
	GUZTIRA	196,96							GUZTIRA	245,25	
	ZONAN	965,16			GUZTIRA ZONAN	1.124,12			GUZTIRA ZONAN	1.162,99	

3. ERANSKINA

2017KO DEIALDIKO JARDUKETA AZPIZONAK

1. ZONA - 6. AZPIZONA		
UDALA	KUADRILLA	BIDEEN KILOMETROAK
URIZAHARRA	MENDIALDEA	48,26
BAROJAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		9,70
FAIDUKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		2,21
LOTZAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		5,98
MONTORIAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA.		6,01
PAGOETAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		5,75
URIZAHARREKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		18,60
UDALA	KUADRILLA	BIDEEN KILOMETROAK
BERNEDO	MENDIALDEA	98,00
ANGOSTINAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		4,32
ARLUZEAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		7,28
BERNEDOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		10,94
MARKIZKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		16,22
NAVARRETEKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		8,76
OKINAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		2,96
KINTAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		7,20
DURRUMA KANPEZUKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		16,88
URARTEKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		8,63
URTURIKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		7,23
VILLAFRÍAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		7,58
UDALA	KUADRILLA	BIDEEN KILOMETROAK
LAGRAN	MENDIALDEA	50,70
LAGRANGO UDALA		39,32
PIPAONGO ADMINISTRAZIO BATZARRA		11,38
2. ZONA - 6. AZPIZONA		
UDALA	KUADRILLA	BIDEEN KILOMETROAK
DULANTZI	AGURAIN	41,22
DULANTZIKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		35,56
EGILETAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		5,65
UDALA	KUADRILLA	BIDEEN KILOMETROAK
BARRUNDIA	AGURAIN	97,05
BARRUNDIAKO UDALA		1,22
AUDIKANAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		6,03
DALLOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		3,13
ELGEKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		5,97
ETURAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		3,95
ETXABARRI URTUPIÑAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		12,09
GEBARAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		3,37
HEREDIAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		16,53
HERMUKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		8,38

2. ZONA - 6. AZPIZONA		
UDALA	KUADRILLA	BIDEEN KILOMETROAK
LARREKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		7,52
MARIETAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		4,19
MATURAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		1,79
MENDIXURKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		10,23
OZETAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		12,65
UDALA	KUADRILLA	BIDEEN KILOMETROAK
BURGELU	AGURAIN	63,48
AÑUKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		7,23
ARBULUKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		10,84
ARGOMAIZKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		15,43
BURGELUKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		16,56
GAZETAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		4,82
IXONAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		8,60

3. ZONA - 6. AZPIZONA		
UDALA	KUADRILLA	BIDEEN KILOMETROAK
ERRIBERAGOITIA	AÑANA	130,53
ERRIBERAGOITIKO UDALA		14,03
ANTEZANAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		12,19
ANUNTZETAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		4,56
ARREKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		2,48
ARTATZA-AXKOETAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		3,04
BARRONGO ADMINISTRAZIO BATZARRA		2,47
BASQUIÑUELASKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		4,51
CAICEDO SOPEÑAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		4,58
HEREÑAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		9,56
LASIERRAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		2,56
LEZIÑANA OKAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		8,50
MORILLASKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		7,25
ORMIJANAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		3,08
PADULGO ADMINISTRAZIO BATZARRA		0,91
POBESKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		3,54
SUBILLA MORILLASKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		8,80
TUYOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		6,08
VILLABEZANAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		18,55
VILLAMBROSAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		8,09
BILORIAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		2,16
VILLALUENGAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		3,58
UDALA	KUADRILLA	BIDEEN KILOMETROAK
LANTARÓN	AÑANA	114,72
ALCEDOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		16,19
BERGONDAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		16,20
CAICEDO YUSOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		13,81
KOMUNIOIKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		11,27
FONTECHAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		12,73
LEZIÑANAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		5,46

3. ZONA - 6. AZPIZONA		
UDALA	KUADRILLA	BIDEEN KILOMETROAK
MOLINILLAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		6,30
LARRAZUBIKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		0,27
SALCEDOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		18,80
TURISOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		13,70

4. ERANSKINA

Dirulaguntza lerroa: ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN LANDA BIDEAK MANTENTZEKO GAUZAZKO LAGUNTZA

Línea de Subvención: AYUDA EN ESPECIE PARA MANTENIMIENTO DE CAMINOS RURALES DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE ÁLAVA

Lehentasun estrategikoa:

Prioridad estratégica:

5. LEHEN SEKTORE PROFESIONAL, BERRITZAILLE ETA IRAUNKORRA

5. SECTOR PRIMARIO PROFESIONAL, INNOVADOR Y SOSTENIBLE

Ardatz estrategikoa:

Eje estratégico:

5.3. NEKAZARITZAKO AZPIEGITURAK HOBETZEA:

5.3. MEJORA DE LAS INFRAESTRUCTURAS AGRARIAS:

5.3.2 LANDA BIDEEN PLAN BEREZIA:

5.3.2 PLAN ESPECIAL DE CAMINOS RURALES:

Helburu estrategikoa:

Objetivo Estratégico:

Aurrerapen nabarmen bat lortzea ustiatuei zuzenean edo zeharka lotutako egungo nekazaritza azpiegituren garapenean, tokiko ekoi-zpina babesteko oinarritzko bitarteko eta hornidura gisa.

Obtener un progreso sustancial en el desarrollo de las infraestructuras agrarias existentes, directa o indirectamente ligadas a las explotaciones, como medios y dotaciones básicas de apoyo a la Producción local.

Saila: NEKAZARITZA

Departamento: AGRICULTURA

Aurrekontu partida: 40101.4601.762.90.01 "Landa bideak kontserbatzeko obrak"

Partida presupuestaria: 40101.4601.762.90.01 "Obras conservación caminos rurales"

	2017	2018	2019	GUZTIRA / TOTAL
	350.000,00	350.000,00	350.000,00	1.050.000,00
		aurrekontua baldintzapean	aurrekontua baldintzapean	
		Dagokion onartzaren	Dagokion onartzaren	

Dirulaguntzaren xedea: gauzazko laguntzak Arabako Foru Aldundiaren landa bideen erregistroan sartutako landa bideak mantendu eta kontserbatzeko

Objeto de la Subvención: Ayudas en especie para el mantenimiento y conservación de caminos rurales incluidos en el Registro de Caminos Rurales de la Diputación Foral de Álava

Onuraduna: Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeak eta udalak	Persona beneficiaria: Entidades Locales y Ayuntamientos del Territorio Histórico de Álava
Emateko prozedura: lehia	Procedimiento de concesión: Concurrencia
Dirulaguntzaren oinarritzko lerroak:	Líneas básicas de la subvención:
Gauzazko laguntza, Arabako Lurralde Historikoko udalen eta toki erakundeen titularitasuneko landa bideak mantendu eta kontserbatzeko Arabako Foru Aldundiak zenbait lan egitean datzana.	Ayuda en especie consistente en la realización por la Diputación Foral de Álava de trabajos de mantenimiento y conservación de caminos rurales, titularidad de las Entidades Locales y Ayuntamientos del Territorio Histórico de Álava
Baterako finantzaketa:	Cofinanciación:
Ez	No
Jarraipen prozedura eta adierazleak:	Régimen de seguimiento e indicadores:
Urteroko jarraipena	Seguimiento anual
Adierazleak:	Indicadores:
- Bideen zenbat kilometrotan jardun den.	- Número de Km. de caminos en los que se ha actuado.
- Erakunde onuradun bakoitzari dagokion dirulaguntzaren zenbateko balioidea.	- Importe equivalente de subvención que corresponde a cada entidad beneficiaria.